

Tilos-Elizatzxo

2019(E)KO OTSAILAREN 15(A), OSTIRALA

ZENTZUMENAK...ZENTZUMENAK...ZENTZUMENAK

Zentzumenak ikasi ditugu, gure garunak nola funtzionatzen duen ikusi dugu eta bukatzeko, taldeka zentzumen bat aurkeztu dugu, hainbat ariketa proposatuz.

ZENTZUMENEN AURKEZPENA 2



Degustación de alimentos



Egilea: [elizatxoh3a](#) ordua: 02:47 iruzkinik ez:

Etiketak: [zentzumenak](#)

LAGUNTZAILEAK

[Elizatzxo](#)

[Lh3b](#)

[elizatxoh3a](#)

BLOG-ARTXIBOA

▼ 2019 (5)

▼ February (2)

[ZENTZUMENAK...ZENTZUMENAK...ZENTZUMENAK](#)

[OLES OLES, LURRA ESNA ZAITEZ!!! OLES OLES, LURRA E...](#)

► January (3)

► 2018 (17)

► 2017 (15)

► 2016 (7)

2019(E)KO OTSAILAREN 6(A), ASTEAZKENA

OLES OLES, LURRA ESNA ZAITEZ!!! OLES OLES, LURRA ESNA ZAITEZ!!!

OLES TA OLES, LURRA ESNA ZAITEZ!!!

Oihan, Hernanitik

Euskal Herrian, otsailaren 4ean, Santa Ageda bezpera ospatu da. Ohitura zahar honetan, koplak kantatu eta lurra makil batez jotzen da.

Kantariak baserritarrez jantzita joaten dira eta koplak abestu ondoren dirua jasotzen dute.

Eguraldi txarra izan arren, jende asko ateratzen da kalera abestera.

Hemen dituzue Elizatzxo ikastolako 3. mailako ikasleak bere jarduna hasteko prest, ea lurra esnatzen duten udaberrirako prestatzeko.



Egilea: [elizatzoh3a](#) ordua: [03:59](#) 1 iruzkin:

Etiketak: [Santa Ageda](#)

2019(E)KO URTARRILAREN 30(A), ASTEAZKENA

ESKALADA LH 3A

Gaur gure txanda izan da eta gu ere primeran ibili gara! Bueltatzeko gogoz!

GOOGLE PHOTOS



Eskalada LH 3A

60 new photos · Album by lh 3a

[Lee esto en photos.google.com >](#)

Egilea: elizatzolh3a ordua: 04:32 1 iruzkin:

Etiketak: Eskalada

2019(E)KO URTARRILAREN 29(A), ASTEARTEA

Eskalada

Pio Baroja, kiroldegian, kirol berri bat frogatu dugu, denok saiatu gara gailurrera igotzen eta lortu dugu!!!!

Primeran pasa dugu! Ikusi gure argazkiak.

GOOGLE PHOTOS



Eskalda 2019

32 new photos · Album by lh 3b

[Lee esto en photos.google.com >](#)

Egilea: Lh3b ordua: 07:19 iruzkinik ez:

Etiketak: Eskalada

2019(E)KO URTARRILAREN 17(A), OSTEGUNA

LANEAN BERRIRO!!!

Oporrak ondo pasa ditugu eta berriro hemen gabiltza lan eta lan.

Oraingoan, KAZETARI lana nolakoa den ikasi eta gu ere kazetari bihurtuko gara.

Hemen doa lehenengo albistea.

TXOTX!!!

Zuhaitz Sagardorena
Elizatzxotik

Urtarrilaren 16an, Sagardo Berriaren Eguna 2019 ospatu da, 2019ko txotx boladari hasiera eman eta sagardo berria dastatzen hasteko. Aurtengo gonbidatua nazioartean diharduen Olatz Arrieta kazetari astigartarra, izan da.

Urtero bezala, hogeita seigarren aldi honetan ere, ekitaldiko unerik garrantzitsuena txotx irekierakoa izan da. Astigarragako Gartziategi sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu egin du Olatz Arrieta kazetariak, eta honekin batera, 2019ko sagardo denboraldi berria ireki da.

Ostiral arratsaldean, Hernanin egingo dute irekiera, eta horrela Astigarraga, Hernani eta inguruko herriak, jendez beteko dira, sagardo berria sagardotegietan dastatzeko gogoz.



Egilea: [elizatxoh3a](#) ordua: 04:27 iruzkinik ez:

Etiketak: [Berriak](#)

[Orri nagusia](#)

[Mezu zaharragoak](#)

Harpidetu honetara: [Mezuak \(Atom\)](#)

Argazkien leihua gaia. Blogger zerbitzuak eskainia.